



*Bizkaiko Ahalak Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

Bizkaiko Ahalak Nagusiaren hitzaldia Politika Orokorrari buruzko Osoko Bilkuran

Gernika, 2022eko irailaren 28a

Joan dan urte gorabeheratsua, legealdi sendoa, berbaldi baten azaltzea ez da bape erreza. Dana dala, errezagoa da abiaburua euki ezker. Nire abiaburua San Mames da, irribarre handi bategaz. Ez bat, milaka irribarre baino, 47.000 irribarre, 47.000 pertsona pozik. Abiaturutzat Fitoren kontzertua hartuko dot, ze ha gogora ekartea orduko gau magikoa, danok poztu gintuan musika-eztandea., barriz bizitzea da eta. Kontzertua baino asko gehiago izan zan: katarsia, lehengo bizimodura itzultzea. Aitortu behar dot hunkitu egin ninduala, barrutik aztoratu ninduala. Pozik dagozan 47.000 pertsonaren oldarrak harrapatu egiten zaitu eta beragaz eroaten zaitu, ezinbestean, nahi ala ez. Eta danok nahi genduan. Eskerrik asko Fitori eta beraren talde bikainari, bai eta ganerako artista guztiei be: Gatiburi, Morgani, Dani Martíni... Eta, batez be, eskerrak eman nahi deusdaz bertan izan ziran guztiei, ekitaldira bildu eta aldi batez guztiz zoriontsu izan ziran, ginan, guztiei. Kontzertu haretan egiaztatu genduan toki batzuetan dan-danok elkarrenganatu gaitekezala. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiak asmatu egin eban bilgune ha sustatu ebanean, guk gozatu ahal izan genduan, eta betiko gorde ahal izango dogu gogoan.

Bizkaian gauza miresgarriak jazoten dira, gauza gogoangarriak. Gehiago be gertatuko dira. Ziur. Aurrerantzean be bizkaitarrek gauza miresgarriak ikusiko dabez. Geuk bultzatuko doguz. Bizkaiko Foru Aldundiak tinko eusten deutso herritarrakaz eta lurraldeagaz daukan konpromisoari. Aldundiak buru-belarri egiten dau lan, bere ahal guztiagaz. Lanean gagoz, eta halan jarraituko dogu. Gauza handiak egiten gagoz, eta halan jarraituko dugu. Jarraitu. Eta horretarako berbea beteten dauanaren abala erabiliko dogu, esaten dauana egiten dauanaren berbea.

Gomuta eder bategaz hasi nahi izan dot gaurko berbaldia: aldarrikatu nahi dodaz jarrera positiboa, bizipoza, alaitasuna, itxaropena, eta une gozoak. Izan be, halakoak be badagoz, eta beti egongo dira; seguruenik onak gehiago izango dira txarrak baino, bestela badirudi be. Ez, ez dodaz ostendu nahi arazoak, baina gauza onak be ez. Batzuk zein besteak ezkutatzeta, gauza bera litzateke: bidegabekeria eta zabarkeria. Arazoak daukaguz, bai, eta munduari begiratu ezker, gehiago eukiko ei doguz. Baina ez daigun dana baltz ikusi; ez daigun baztertu itxaropena, ez bizipoza. Gauza ederrak gertatzen dira gurean, oso ederrak. Lurralde aurreratuan bizi gara, gure bizi-kalitatea ona da, puntako zerbitzu publikoak daukaguz, eta pertsona gehienak biltzen dituan erdigunea dago. Bardintasunaz nabil, gizartea izateaz, gizarte bat. Hauxe da etorkizunerako berbe bakarra, hezkuntzagaz batera, beharbada. Bardintasuna. Aukeretan, eskubideetan eta betebeharretan. Bardintasuna.

Sumatzen dodan gogo-aldarte orokorra kezkarria da: batzuek nahiago dabe eten barik kritikeari, suminari eta kexari lehentasuna emon autokritikea eta jarrera positiboa landu baino. Beti errudun



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

bila, eta errudunak beti besteak, beti aurrekoak; epaiketa azkarrak eta ebazpenak di-da, erresumin handia eta enpatia gitxi. Arduratuta nago. Ez dot uste hori danik bidea, ez jarrera egokia. Jarrera positiboagaz dana da errazagoa. Gaixoaren jarrereak eragin handia dauka haren osatzeko prozesuan. Jarrera gakoa da, eta are gehiago aldi larrietan. Gure jarrera, danona, erabagigarria izango da aldi latz honetan suspertzeko. Honen jakitun izan behar dogu: danon esku dago jarrera hori hartzea. Modu positiboan pentsaten eta jarduten badogu, seguruenik emoitza onak lortuko doguz. Modu negatiboan pentsaten eta jarduten badogu, seguruenik emoitza txarrak lortuko doguz. Pentsaten eta egiten doguna gara. Pentsaten eta egiten doguna izango gara. Danok.

Bizkaiko Foru Aldundiak, nik neuk eta nire talde osoak jarrera positiboa daukagu. Batez be orain, edo orain inoiz baino gehiago. Gaurko egoereari jarrera positiboagaz egiten deusagu aurre, halan egin behar dala uste dogulako, ardurea daukagulako, eta eredugarriak izan behar dogulako. Ilusino handiagaz, indar handiagaz eta begiak urrunean iminita egiten dogu behar. Ziur gagoz arazoan konponbideak aurkituko doguzala; ziur gagoz aurrera egingo dogula, ezinbestean. Beste krisialdi batzuk be jasan doguz, eta aurrera egin dogu. Egoera gatx honetatik be urtengo dogu, eta urten be danok batera. Bardintasuna. Jarrera positiboa. Bizkaia.

Jarrera positiboak jardunean mantentzen gaitu, eta proiektuak eragiten ditu. Proiektuen Aldundia gara. Ez errietarik, ez agirakarik, ez berba hutsik... Proiektuak, proiektuak eta proiektuak. Ametsak ideia bihurtzen dira, ideiak proiektuetan gauzatzen dira, proiektuak egia bihurtzen dira, eta halan Bizkaia hobetzen da. Horixe da Bizkaiko Foru Aldundiaren bizi-zikloa, eta hemendik aurrera be izango da. Egin doguna da horren guztiaren lekuko. Egitateak.

Gaurkoan barrikuntza batzuk azaldu nahi deusuedaz. Barrikuntza horreei esker Bizkaia hobetuko da, bizkaitarren bizi-kalitatea eta ongizatea hobetuko dira, Bizkai hobea itziko deutsegu hurrengo belaunaldiei. Gogor eusten deusagu gizarte honegaz daukagun konpromisoari. Hortik ez gaitu inork atarako. Lehen barrikuntza garrantzitsua: itsasadarraren azpiko tunela, gure proiektu handietako bat. Proiektua aurrera doa epealdiaren barruan. Laster eraikuntza-proiektua idazten hasiko gara, eta beraren balioa eta erabilgarritasuna areagotuko dauzan plusa gehitu deusagu.

Tunelak Bizkaiko metro-linea garrantzitsuen biak lotuko ditu: linea bi horreen arteko bigarren lotunea izango da (beste San Inaziokoa da). Hasieran ibilgailuentzako tunela izango zana tunel multimodala izango da: tren batek Metroaren 1. eta 2. lineak lotuko ditu Sestaoko eta Areetako geltokien artean. Erronka gatxa izan da, batez be lurren orografiagaitik, baina dagoeneko badaukagu soluzinoa. "People mover" deritxona ibiliko da lurpeko 2.600 metroko tartean. 300 metro tunelaren tartean izango dira. Uste da egunean 5.000 pertsonak erabiliko dabela eta ia hogeitun minutu gitxiago beharko dirala geltoki batetik bestera heltzeko San Inazion zehar. Gaur egun 25 minutu izaten dira eta amaitutakoan lau inguru izango dira. Plus honek ez dau eraginik eukiko aurreikusitako eraikuntza-aldietan. Itsasadarraren azpiko tunela erabilteko moduan egongo da



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

2028rako, bai ibilgailuentzat, bai multimodal modura. Jakina, plus honek hasierako aurrekontua gehitu dau: 185 milioi gehiago; beraz, guztirako inbertsioa 600 milioi euro izango da.

Uste dot albiste oso pozgarria dala Bizkai osoarentzat. Guztiz beharrezkoa da: Bizkaiko saihebidet handia Supersur saihebidetaz batera, Errontegiko zubiaren alternatiba, egunero 155.000 ibilgailu pasaten dira bertatik eta. Batez beste, tuneletik 51.000 ibilgailu pasatuko dira lanegunetan, 18.000 ibilgailu kenduko ditu La Avanzadatik, 14.000 Max Center-en zuzenetik, eta 35.000 Errontegiko zubitik.

Hori oso ona da Bizkai osoarentzat, eta batez be Ezkerraldearentzat eta Eskuinaldearentzat, inoizko hurren egongo dira eta. Bardintasuna. Ganera, ekinaldi hau bat dator etorkizunean mugitzeko ereduari buruz daukagun ikuspegiagaz: tren, bizikleta eta oinetakoak. Beraz, tren gehiago, eraginkortasun handiagoa, erosoago eta jasangarriago. Hoberako. Bizkai hobea.

Sinistu eta sortu. Honeexek dira gure gakoak: egiten doguna ondo dagoala sinistea eta sinisten doguna sortzea. Guggenheim Museoa sinistu genduan. Erakunde honek proiektuan sinistu eban, ikuspegiagaz eta buruzagitzagaz, eta Guggenheim sortu eban, munduaren aurrean daukagun enbaxadore handia. 25 urte dira Guggenheim Museoa sortu zanetik, arrakastaz betetako 25 urte. Museoaren plan estrategikoagaz bat datorren gogoeta bat ekarri nahi dot hona: ezin gara bizi errentetatik; hobetzen jarraitu behar dogu, nahiz eta ondo ibili. Horregaitik egin nahi dogu Guggenheim Gernika. Sinistu eta sortu. Izan be, proiektu horretan kultura, jarduera ekonomiko eta ingurumenaren babesa biltzen dira pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko asmoagaz. Urdaibairako eta Bizkairako moduko proiektua da, eta gaur eguneko aldira egokitua. Proiektu honek kultura sustatuko dau, batez be sortzaile gazteak, eta ezohiko modu baten, baina Guggenheim markaren bultzadea eta esperientzia ereduagarria oinarritzat hartuta. Proiektu honek ingurumena babestuko dau, Urdaibai hobeto babestuko dau: industria-jarduera astunak erreserbaren muintetik ataratu ditu, ontziolea CO2 emisino bako eraikin ikoniko bihurtuko dau eta. Barriro esango dot: CO2 emisinoarik eukiko ez dauan eraikina. Izan be, Dalia industriaguneko aurriak zaharbarrituko doguz, eta gure asmoa da oinez, bizikletan edo trenean bakarrik sartu ahal izatea; autorik ez. Bisitarien kopurua mugatzeko asmoa dago, ez daiten egon jente-pilaketarik. Ganera, hil batzuetan baino ez litzateke zabalik egongo.

Proiektuak ez deutso ezelango kalterik egiten Urdaibairi, eta erabateko begiruneagaz tratetan ditu bertan bizi diran, garean, pertsonak. Ganera, jarduera ekonomiko bultzatzen dau, jarduera ekonomiko barria, ezer ordeztuko ez dauana. Guggenheim Bilbao Museoak argi erakutsi dau zelako erakarmena dauken honelako proiektuek. Beste alde batetik, museo honek eskualdeen arteko aukera-berdintasuna be sustatuko dau. Gernika eta eskualde osoa behin betiko bizibarrituko ditu. Aukera ona da eskualdearentzat, bai eta konpromisoa eta etorkizuna be, eta hobeak egiten gaitu. Bultzadea emongo deutso Guggenheim Museoari, gure enbaxadore nagusiari. Museo bultzatzen



jarraitu behar dogu, argi dago eta emoten deusaguna baino askoz gehiago itzultzen deuskula; etekinak gastuak baino gehiago dira, inbertsioa biderkatzen dau. Guggenheim Gernika proiektu jasangarria da alde guztietatik, bai aurrekontuaren aldetik, bai eguneko funtzionamenduaren aldetik.

Gaurko bigarren barrikuntza garrantzitsua. Museoak ospe handiko nazioarteko taldea kontratatu dau arkitektura, ingurumen eta paisaia planaren gitxieneko oinarriak lantzeko. Uste dogu plana prest egongo dala bost hilabete barru. Aldi horretan Espainiako Gobernuagaz berbatutako 40 milioiko ekarpena ziurtatu behar dogu. Albiste ona da, bai horixe, eta proiektua sendoa dala adierazten dau. Ganera, Eusko Jaurlaritzagaz lankidetzan jarraitu behar dogu, bai ingurumenaren arloan, eredu jasangarria ezarteko eta Urdaibai erreserba jagoteko, bai garraioen arloan, Aldundia eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Saila museora Euskotrenen oraingo lineatik trenez joateko modurik hoberena argitu nahian lantzen dagozan protokoloa abian ipintzeko.

Hirugarren barrikuntza garrantzitsua. Adineko pertsonen ongizatea, laguntasuna behar daben pertsonen ongizatea. Konpromisoa hartu dogu gizarte ekintza modernizateko eta trantsizino soziosanitarioa egiteko, eta iraupen luzeko zainketen trantsizinerako plana sustatzen dogu. Gaurko honetan urrats gehiago egiteko konpromisoa hartuko dot.

Azpiegiturak-en beste zortzi egoitza alkarbiritza-unidade bihurtuko doguz. Unidade horreek antz handiagoa dauke etxebizitzena zentroena baino: abegitsuagoak dira, erosoagoak, hartuemon gehiago sortzen dira eta bizimodua hobea da. Zamudioko egoitzagaz hasiko gara eta ondoren beste zazpi aldatuko doguz. 868 plaza gehiago alkarbiritza-unidadeetan. Eraldakuntza honen ondorioz 243 plaza gitxiago egongo dira zentro horreetan, baina zentro barri bi zabalduko dira plaza gehien beharko diran tokietan, Sestaon eta Durangaldean. Bakotxean 120 plaza egongo dira. 18,4 milioi euroko inbertsinoa egingo da. Diru-erreserba eginda dago. Gure helburua da datorren urtean 1.200 plaza egotea egoitzetan. Eredu honegaz 39 egoitza-zentrok egin dabe bat dagoeneko, eta Aldundiak laguntasuna emongo deutse. Prestakuntza-ziklo bat bultzatuko dogu egoitza-zentro horren eraldakuntzaren buru izango diranentzat, eta alkarbiritza-unidadeak ikuskatzeko plan berezia aplikatuko dogu. Erabat sinistuta gagoz hauxe dala bidea.

Ganera, aurrera egin dogu eskualdeetako erreferentziako zentroetan (ekipo espezializatuak dagozan zentro soziosanitarioak). Dagoeneko martxan dago Birjinetxe Bilbon (ehun plaza), eta 25 plazako soziosanitarioko bat zabalduko dogu Gernikako ospitaleko hirugarren solairuan. Horrek eskualdeko egoitzei lagunduko deutse, bai eta barriri euren kautan bizi ahal izateko suspertzeko tokia behar daben pertsoneri be. 2023ko hasieran hasiko da lanean, baina zentroa atontzeko obrek urtebete gehiago iraungo dabe. Eskualdeko erreferentziako beste bi zentro be egingo dira: bata Leioan, Uribe eskualderako, eta bestea Sestaon, Ezkerraldea-Enkarterri eskualderako. Zentro



bakotxean 25 plaza soziosanitario egongo dira, eta ekipo espezializatuak eukiko dabez. Eskerrak emon nahi deutsedaz Osasun Sailari eta Osakidetzari euren laguntzagaitik.

Planaren hirugarren zutabea: EtxeTIC zentroak, etxean arreta behar daben pertsoneri laguntzeko prestatu doguzan baliabideak. Bilbon eta Etxebarrin lanean dagozanei Zallakoa, Mungiakoa, Basaurikoa eta Gernikakoa gehituko jakez. 2023ko lehen seihilekoan Zallakoa hasiko da lanean, eta bigarren seihilekoan Mungiakoa eta Basaurikoa. Bizi-kalitatea hobetzeko teknologia, baina profesionalak alboratu barik. Justu kontrakoa, hain zuzen ere. Egoitzetako profesionalak trebatzeko planak aurrera egingo dau: langile horreen prestakuntza hobetzeko dirulaguntzak emongo dira, gaitasun hobea euki dagien gure gizarteko adinekoei arreta egokia emoteko. Iaz ia 500 profesionalak hobetu eben euren gaitasuna. Prozesu horretan danek irabazten dabe, eta horixe da kontua.

Horra barrikuntzak. Hauxe da gure eguneroko beharra, eta datozen egunetan be halan izango da: proiektuak, proiektuak eta proiektuak; kudeaketa, kudeaketa eta kudeaketa; beharra, beharra eta beharra. Gure ardatzak jarduera ekonomikoa eta enplegua dira; horreexek dira gure lehentasunak. Beti aurrera, eten barik, zorrotz, ikuspegiagaz, egitateakaz. Orain egun batzuk Bizkaia dorrea zabaldu dogu, Europako hegoaldeko ekimenaren erreferentea izango da, munduko potentzial handiko 140 tokigaz lotutako hub-a: Xanghai, Singapur, Tokio, Boston, New York, Sao Paulo, Dublin, Tallin... Asko kostatu jaku. Asko be asko. Barritzea gatxa da. Erosotasunetik urtetea nekeza da, baina lortu dogu. Orain jardueraz bete behar dogu: lehen fasean 4.000 metro karratu ipini dira abian dorrean, eta okupazioa % 80koa da. Ondoren hurrengo 4.000 metro karratuei ekin behar deutsegu.

Etorkizuneko enpresei jaioten eta hazten lagundutea toketan da, egungo enpresek lagunduta eta babestuta. Eskerrik asko, benetan, gure enpresa traktoreei, sinesteagaitik eta sortuteagaitik, eta alkarregaz egiteagaitik.

Bizkaia industria izan da, da eta izan behar dau. Dorre hori funtsezkoa da etorkizun industrial horretan, Bizkaiaren etorkizuneko jarduera ekonomikoan eta enpleguan, eta inposau egiten diran eredu barrien aurrean gure enpresek dauken lehiarako posizioan.

Hain garrantzitsua bada, pazientziagaz eta maitasunagaz jagon behar dogu. Ez dot koheteetan sinesten, azkar igoten dauana azkarrago jaisten dalako. Gurago dot etenbako hazkunde iraunkorra. Epe ertain-luzeko proiektua da eta egoera gatxean jaio da. Ez naz aieneka hasiko, egoerearen egiaztapena baino ez da. Niretzat arrakastea da, ez garalako inoiz damutuko ez saiatzeagaitik; izan be, horixe da jazo eitekean gauzarik txarrena. Bizkaiko Foru Aldundiak bere aldetik dana ipini dau enpresa barriak sortuten eta hazten lagunduteko, Bizkaian jarduera ekonomiko eta enplegu gehiago



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

eukiteko, gure gazteek ibilbide luzeko aliatua euki dagien. Seguru nago beti zeozer gehiago egin ahalko dala, baina hau ez da gitxi. Eskerrak emon nahi deuseadaz hori posible egin daben guztiei. Zuen ardurek merezidu izan dabe, nahiz eta sumatuten dodan oraindik ardura gehiago beharko dirala iritsi nahi dogun lekura iristeko. Ezer barririk ez. Ardura horregaz jarraituko dogu.

Dorre hau ez da uharte bat ozeanoaren erdian eta orain arte egin dogunaren gailurra da. Aurten 27 milioi inbertidu dira ekintzaitza aurreratuan, eta Urduliz 42 ekimenagaz urte honen amaierarako gaitasun digitaletan adituak izango diran ia 300 pertsona eukiko doguz, gure talentuaren aldeko bokazinozko eta erabateko apustuagaz, talentuari lagunduteko plan berezi bategaz. Plan honek datozan bost urteetan 10 milioi izango dauz, enpresak eskatuten dauzan gaitasunen eta langile kualifikatuen eskaintzaren arteko hutsunea murriztuteko. Alkarregaz egiteko bokazinoagaz: administrazioak, sektore pribauak eta hezkuntza-munduak, danok garalako ezinbestekoak. Talentua erakartzeko tratamendu fiskal egokiagaz eta beka espezializatuakaz. Dana Bizkaiko talentuarengaitik eta Bizkaian talentua eukitegaitik. Talentua funtsezkoa dalako industria-garapenerako.

Enpresa txiki eta ertainak moduan. Aurten 19 milioi laguntza zuzenetan 215 enpresa txiki eta ertainentzat; 2,6 milioi sektore turistikoa indartuteko, pandemiaren aurreko datuak hobetuz barriro be Bizkaiaaren aldeko konfiantzea erakutsi dauan nazinoarteko eta estaduko turismoagaz. Tokiko merkataritzari % 25 gehiago lagunduta. Lehen sektoreko profesionalei lagunduteko txoke-plan berezia. Gertu gagoz. Oso gertu.

Ganean gagoz. Hemen gagoz.

Talentua funtsezkoa bada, bardin gertatuten da I+G+b-gaz. Gure balio erantsia eta lehiakortasun-faktore nagusia kalidadea da, eta barrikuntzatik, ikerkuntzatik eta produktu eta prozesu barri eta hobeen garapenetik baino ez da iristen horretara. Pakete fiskal itzela aktibau dogu enpresen eta startupen I+G+b inbertsinoa errazteko eta talentu mota hori erakarteko, 64Bis moduko neurri apurtzaile eta barritzaileakaz. Araudi horrek bultzatutako 274 proiektuk 86 milioi euro mobilizau dabez I+Gn azken bost ekitaldietan. Prozesuak zuzeneko inbertsinorako eta herritarren lankidetzarako mekanismo propioak daukaz, esaterako barrikuntza-funtsa. 3.343 tokiko inbertitzailek 26 milioi euro baino gehiago mobilizau dabez gure enpresak hobeak izan daitezcan. Bizkaian hazteko ekosistematik onenetakoa daukan ikus-entzunezko industriari eta zuzeneko ikuskizunen industriari horizonte eta jarduera-espazio barriak edegita. Onena ez bada be, Europak bermatua eta segurtasun juridiko osoagaz. AICren laugarren fasea laster zabalduko da; 50.000 metro karratu automobilari eskainita, eta 30 erakunde eta 900 profesional alkarlanean. Eta beste barrikuntza garrantzitsu bategaz: trenbide-industria AICn sartueta. Barrikuntza hainbat mugikortasun-modutan.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

Horixe da Bizkaiko eta Herrialdeko ekonomiari eta enpleguari egiten deusagun ekarpena. Azpiegitura Sailaren aurtengo inbertsino publikoak bakarrik, 1.500 lanpostu sortu edo mantenduten dauz Bizkaian.

Lurraldekoa hobetuteaz gain, hazkunderako, jarduera ekonomikorako eta enplegurako palanka moduan jarduten dogu. Gauza bera Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Bardintasuna Sustatzeko Sailagaz, 2020-2023 Enplegu Plan Bereziaren garapenagaz. “Kontrata” programeak bakarrik, 1.357 enplegu sortuten lagundu dau, ia erdiak mugabakoak, eta 249 gazte enpresetan sartuten. Presentzia aktiboa, lankidetzak, publikoak eta pribaua batuz, emoitzak biderkatuteko.

Gobernu ekintzailea, beti guztion ongia bilatuten dauana, arriskuari aurre egiten deutsona eta ez dauana porrota deritxon hori onartuten; akatsetatik ikasten dauana eta autokritika egiten dauana. Aurreko errentaren kanpaina ez genduan ondo egin, baina aurtengo honetan benetan asmau dogu. Ekitaldi honetan marka guztiak ondu doguz. Historian inoiz ez da hainbeste aitopen aurkeztu. 614.276. Hamar pertsonatik zazpi zuzenean onartu dabe Ogasunaren zirriborroa, eta hamarretik hiruk bakarrik sartu behar izan dabe daturen bat zirriborroa osatuteko. Kexarik ez. Bapez. 10 puntutik 8,5 puntu erabiltzaileen balorazioetan.

Bizkaiko Foru Aldundiak hurbiltasuna, egonkortasuna eta segurtasuna moduko balioak daukaz. Uste dot balio horreek, gehi gure “hain ekinak izateak”, gure lan komertzialak, azken urte bi honeetan erakarri doguzan konpainia guztiak erakartzen lagundu deuskuela. Bizkaian mila enplegu barri sortutea aurreikusten daben dozena bat enpresa. Izen handiak eta txikiak be bai, tamainuari jagokonez, Bizkaia jaio eta hazteko aukeratu daben ia 40 startup eta tech konpainiak moduan. Hori be Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzukizuna dala uste dogu, eta hor gagoz, egunez egun.

Danok entzuten doguz ekonomiari buruzko iragarpen oso baltzak. Ez daukat kristalezko bolarik eta ez dakit zelan egongo garan hilabete bi edo urte bi barru. Badakit zelan gagozan orain eta zer datu erabilten doguzan: zortzi hiruhilekotan jarraian BPGren hazkundera; enpleguari buruzko daturik onenak 2009tik, % 9,3ko langabezia-taseagaz, Gizarte Segurantzian 2015ean baino % 8 afiliatu gehiagogaz; industri produkzioaren indizeak % 8,1eko hazkundera izan dau iazkoaren aldean; esportazioek % 36ko urte arteko hazkundera euki dabe; txikizkako merkataritza % 4,5 suspertu da. Ez dakit zenbakiek zer esango daben hilabete batzuk barru edo urtebete barru, baina badakit zertan ibiliko dan Bizkaiko Aldundia: buru-bekarri jarraituko dau jarduera ekonomikoa eta enplegua bultzatuten, lurraldeko enpresak ondo badoaz Bizkaia be ondo joango dalako. Ondo joango jake hemen bizi diran guztiei. Hori da kontua, bizi-kalidatea eta ongizatea.

Mugikortasuna funtsezkoa da bizi-kalidatearen eta ongizatearen elementu moduan. Asko aurreratu dogu, batzuen sinesgaiztasuna eta beste batzuek bazterrak baltzez pintau arren. Gobernu honek eta Ahaldu Nagusi honek ez dabe inoiz amore emoten. Oraintxe urtebete tribuna honetan bertan



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

Metroa Galdakaora iristeari buruz egin neban berba, eta zintzotasunez egin neban, izugarriak ziran zailtasunak ezkutau barik baina besoak jaitsi barik. Orduan entzutekoak entzun behar izan genduzan. Gaur segurua da Metroa Galdakaora eta Usansoloko ospitalera iritsiko dala eta Busturialdeko eta Durangaldeko Euskotrenez konektatuko dala. Segurua da. Atzo bertan Eusko Jaurlaritzak Gobernu Kontseiluan onartu eban Aldundi honek aspaldi onartu eban finantzaketa-hitzarmena. Gure aurreikuspenen arabera urriaren 17a izango da hitzarmena era formalean sinatuteko eguna, eta astebete geroago obren lehen hiru zatiak lizitatu dira. Bizkaian ongizatea eta bizi-kalitatea hobetutearen beste adibide biribil bat.

Bizikletaz mugiduteko politikeak be bizi-kalitatea eta ongizatea hobetuko dauz, Bizi. Zaratarik egin barik, pedalak eraginda, pedalak asko eraginda, kilometroak egin doguz. 2023ko martian jarriko da martxan Zornotza eta Durango arteko bizikleta-pista. Aurtengo abenduan Erandio eta Barakaldo artean bizikletentzako eta oinezkoentzako zubi mugikorraren proiektua eukiko dogu. Gure aurreikuspenen arabera obrak datorren urtean hasiko dira eta 2024aren hasieran zubia martxan egongo da. Bost egun igaro dira Bizkaibizi, bizikleta elektriko partekatuen proiekturako eskaintzak aurkezteko epea itxi zanetik. 600 bizikleta elektriko partekatuteko, eta bederatzi udalerrri inplikata, lurralde osoan zehar hiri-aparkalekuak eta laguntza-guneak instalata. Eta egiturazko azken barrikuntza garrantzitsu eta koherentea: Bizi, bizikleta bidezko mugikortasuna sustatuteko foru programea, Automotive Intelligence Centerren barruan integrauko dogu, eta beste kompetentzia-arlo bat izango da AICren barruan. Ez dot beste ekosistema hoberik ikusten bere hazkundera eta etorkizuna bermatuteko. Etorkizuneko mugikortasuna alkarri lotuta dago, bloke baten moduan funtzionaten dau eta mugikortasun horren giltzarria AIC izango da. Taldeko barrikuntza Bizkaiko mugikortasunaren etorkizunaren alde.

Azpiegiturak be hobeak egiten gaituzte. Itsasadarraren azpiko tunelaz gain, beste proiektu garrantzitsu batzuk dagoz martxan. Datorren urteko Aste Santuan Supersur Saihesbidearen eta AP-68 errepideen arteko loturea zabalduko dogu. Supersur Saihesbideari zentzu osoa emongo deutson obra konplexua; bete dogun beste berba bat. Urdaibairako sarbide hobeakaz be badaukagu konpromisoa. Urte batzuk dira Zornotza eta Autzaganeke sarbidea hobetu genduana, eta orain Solluberen txandea da, distantzia eta ibilbidearen denborea murriztuten dauzan hobekuntza-proiektu bategaz. Ia-ia Sollubeko mendate barri batez ari gara, Mungiako eta Larrauriko inguruan Bidebietako biribilgunetik trazadura barria eukiko dauana. Trazadura barri horretan tunel bi egingo dira (315 metro eta 130 metro, hurrenez hurren), bihurtune ugari zuzenduz eta ibilgailu geldoentzako hirugarren errete bategaz malda handieneko zatietan. 65 milioi euro baino gehiago, Interbiaken zainpetuta dagozanak obrea gauzatuteko.

Leioatik igarotzean La Avanzada estalduteko konpromisoa be hartu genduan. 4.132 metro karratu lehengoratuko doguz herriaren erdian pertsonentzat, eta hormigoizko lubakia oinezkoentzako gune berde bihurtuko dogu; berdea, biziteko. Lanak datorren apirilean hasiko dira, 41 hilabeteko



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

exekuzino-epeagaz eta 65 milioiko aurrekontuagaz. Bizkaian zirkulazino-dentsidade handiena daukan puntuetako bat da, eta ez da erraza izango, baina egingo dogu. Ganera eguzki-panelak ipiniko dira tunelaren barruan energia aurrezteko, eta egungo zarata-mailea jaisteko hobekuntzak egingo dira.

Markinako saihebidia be abian da. Kalkuluen arabera proiektua urrian izango dogu, eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenagaz dana ondo badoa urtarrilean onartutea eta obrak datorren urteko martian lizitatzea itxaroten dogu. Makinak 2023ko irailean sartuko litzatekez eta obrea 2026ko udarako prest egongo litzateke, 27 milioi euroko inbertsinoagaz eta helburu argi batez: Etxebarria guneagaz dagoan mugikortasuna hobetutea eta Markinako erdigunetik autoak ataratea. Esku artean daukaguzan azterlanen arabera, aldaera horrek herria zeharkatuten daben ibilgailuen batez besteko intentsidatea % 53 murriztuko dau.

Obra handiak eta obra txiki handiak be bai. 112,3 milioi euro hurbileko jardueretarako eskualde guztietan. Eموitza bikainak lortu dabezan obrak, besteak beste Kukularra La Avanzadan, hirugarren erreia Kanpazarren, Markina eta Berriatua arteko errepidearen hobekuntza edo geldialdi teknikoko guneak N-240 errepidean, Arratian. Digitalizazinoa errepideetara be iristeko asmo argiagaz. 25 milioi, 70 barrikuntza-proiektutarako, errepide digitalizau eta sentsorizauetarako, seguruagoak, erosoagoak. Eta egun gitxi barru, urriaren 1etik aurrera, errealidadea izango da AP-68 autobidean gastuaren muga ezartzea, AP-8 autobidean gertatuten dan moduan: 34,55 euro hilean, gehienez, Bizkaiko joan-etorrietan, eta 50,54 euro, Araban.

Bizkaiko Foru Aldundiak ausardiagaz pentsaten dau eta ausardiagaz jokatuten dau, erakunde bat dalako, eta erakunde berbea azpimarrau gura dot, erakunde oso handia dalako. Jagon daigun Aldundia, eta Aldundiak guztiak jagongo gaitu. Nahiko da egintzak aitatutea, eta ez bakarrik Aldundi honen eta gobernu-talde honen egintzak. Herentzia historikoaz ari naz, aurreko diputau guztiek eta euren lan-taldeek hemen lan egin daben zerbitzari publiko guztiei itxitako ondareaz. Nire miresmena eta esker ona, Bizkaia hobetuten zelan lagundu daben ikusita. Adibide asko aipatu neikez handitasun horren, ikusteko eta gauzatuteko gaitasun horren, inplikazino eta lidergo horren ganean, baina hiru baino ez dodaz aitatuko, nire ustez argigarriak diranak: diru-sarrerak bermatuteko errentea, aitzindariak izan ginalako hemen sortu zan aurrerapen sozial eta bardintasun horretan; Metroa, garraio publikoaren erreferentea Bizkaian eta herrialdean, erabiltzaileen % 93 harro dagozalako Metro hau eukiteaz eta erabilteaz; eta gure ahalmen fiskala, gure Ogasuna, hemen bizi eta lan egiten daben pertsona guztien aliatu handia dana.

Herritarren zerbitzura gagoz, batez be orain, bizitzaren garestitasunak ziurgabetasun handiagoo sortuten dauanean. Ez daukagu Ukrainako gerrea amaituteko giltza, ez daukagu gasaren eta erregaien prezioaren giltza, ezta inflazinoarena be. Baina beste giltza batzuk daukaguz, eta giltza horreekaz babeslekuak edegiten doguz bizkaitar guztiek denboralea hobeto jasan daien.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

Ziurgabetasunaren aurrean, konpromiso handiagoa; segurtasun ezaren aurrean, behar gehiago; eta arazoaren aurrean, urtenbide gehiago. Jarrera positiboa. Desbardinak izaten jarraituten dogu, gauza desbardinak egiten doguzalako, baina, funtsean, gauzak egiten doguzalako.

Bizitza ikaragarri garestitu da eta guztiok sufriduten dogun zeozer da; diruak gero eta gitxiagorako emoten daukela eguneroko errealitatea da, batez be gitxien daukean pertsonentzat. Ezin ginan ezer egin barik geratu. Ezin izan dogu KPlaren hamar puntuko igoera orokorra eragotzi, ez dago gure esku, baina lortu dogu Bizkaiko pertsonen gitxiago nabaritatea. Izan be, hori Bizkaiko Foru Aldundiaren esku dago, autogobernuak zeozertarako balio daukako, gure ahalmen fiskala eta arau-ahalmena erabakigarriak diralako. Ogasun propioa izateak desbardintasunak markatuten dauzalako.

Bultzautako neurriei esker, igoera hori laurden bat neutralizatu ahal izan dogu. Ahalegina nabarmena da. Posible da 5,5 puntu deflaktuta eta errenta txiki eta ertainei 200 euroko kenkaria eginda. Gauza bera autonomoentzako eta ETEentzako neurri bereziakaz. Atzeratu egin dogu autonomoei, mikroenpresei eta enpresa txikiei 330 milioi baino gehiago kobratutea, bai pandemiagaitik (2020 eta 2021 ekitaldiak), bai inflazio handiagaitik (2022 ekitaldia), eta zabalik dago oraindik be 2022ko hirugarren hiruhilekoko zergen epemugarako aparteko atzerapen horreek eskatuteko aukerea.

Kolpe horren laurdena neutralizatu, bizkaitarren poltsikoari min gitxiago egitea, hilearen amaierara iristek hemen beste leku batzuetan baino laurden bat gitxiago balio izatea, garrantzitsua da. Bardintasun handiagoa da guztiontzat. Bardintasuna. Baina gehiago gura dogu eta pertsonen eta familiei lagunduteko ekimenak landuten jarraituten dogu. KPlaren igoerearen laurdena neutralizatu dogu eta gehiagoren bila goaz. Saiatu behintzat egingo gara, laguntzinoa emonda, jakinda erronka honek merezidu dauka. Aldundiaren esfortzua eta fiskalitatea eskaintzen dodaz helburu horretara iristeko: urte honetarako eta hurrengorako geratuten diran inflazio-puntuak baretuteko ahalegina. Neurri honek datozan asteetan zehaztuko dira, eta Ukrainako gerrearen ondoren Ekonomia Sustatuteko Sailek hartutako neurri gehituko jakez, adibidez tokiko hornidura-katea hobetuteko programea, milioi bat euro merkataritza-bonuetarako, gabealdiaren luzapenaren gastuei aurre egiteko Elkargigaz sinautako hitzarmena edo Bizkaia Aurrera mikrokredituen gabealdia luzatutea.

Bardintasuna da gure kontzeptu nagusietako bat. Guretzat aukera-bardintasuna agindua da: Bizkaia lurralde orekatua izatea, aukera eta betebeharrak. Beti izan dogu oso argi 112 garala. Ez gara bat, 112 gara, eta 112 horreek, danok, Bizkaia egiten dogu. Urte oso garrantzitsua izan da Bizkaiko udalentzat eta tokiko finantzaketarako: 80 milioi gehiago Udalkutxaren bidez eta beste 52 milioi Herriak Egiten ezohiko funtsaren bidez. 100.000 euroko gitxieneko inbertsinoa txikieneztat eta 15 milioi eurokoa udal kirol azpiegituretarako.



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

Hurbiltasun handiagoa, lankidetzan handiagoa, gobernantza kolaboratibo handiagoa. Aldundiak eta udalek, udalek eta Aldundiak gauza handiak egin doguz alkarregaz: kirol-azpiegituretako hobekuntzak, Tour Eguna, Bizkaibizi, bizikleta elektriko partekatua, lankidetzan ustebakoei aurre egitea, administrazioa BiscayTIKen bidez digitalizatzea, suhiltzaileen parke barriak Zallan eta Arratzun... Eta pertsoneri arreta hobea emotea. Gertu bulegoerik ari naz, Bizkaiko herrietan edegi doguzan Aldundi txiki horreen ganean. Ereduak funtzionatu egiten dau eta funtzionatu dauana zabaldu egin behar da. 177.025 pertsona artatu dira herrian bertan, Bilbora joan behar barik; 233.451 izapide egin dira etxetik gertu. Durango, Bermeo, Gernika, Balmaseda eta Mungiako Gertu bulegoerik igorre eta Markinakoak gehituko jakez 2023ko hasieran.

Ekonomia eta enplegua sustatutarakoan be hurbiletik, tokitik jokatuten dogu, besteak beste Arratiako Zulaibarren kasuan eta eskualdeko 21 eragileren beste 57 proiektugaz, Bizkaia Orekan Sakonduz programaren barruan. Gertutasuna eta berdintasuna. Eta ezer hurbiltasuna eta bardintasuna bada eta, aldi berean, ezer Foru Aldundiaren marka bada, hori banda zabala, abiadura handiko Internet, Bizkaiko txoko guztietara zabaldu da. Agian egin dogun gauzarik onenetakoa da, herentziarik onenetakoa. Azken hamabi hilabete honeetan barreatutako nukleoetan sakabanatutako 144 etxebizitza konektatu izatetik ia 3.000 izatera igaro gara. Beste 3.203 etxe obra-fasean dagoz eta 1.976 baimenen administrazio-fasean. Aurrera egiten jarraituko dogu Bizkaiko azken txokoraino. Gure aurreikuspenen arabera 2023aren amaierarako Bizkaiko etxebizitzaren % 99,53k Internetarako sarbidea izango dabe. Lurraldeko etxebizitzaren % 99,53 konektatuta egongo dira. Pauso erraldoia. Familientzako bizi-kalitatea eta aukera gehiago eremu horreetan lan egiten daben enpresa eta profesionalentzat.

Gizonen eta emakumeen arteko bardintasunean be aurrera egiten dogu. Aurten be, % 1,11gaz, % 1 baino gehiago bardintasunerako programa espezifikotara bideratzeko autoeskakizuna betetuten dogu. Aldundiaren Seigarren Bardintasun Plana hedatuten ari gara, eta 73 udalek osatuten dabe Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Lurralde Sarea, bardintasunaren lurralde-estrategiaren oinarria dana.

Inork ez dau ulertuten bardintasunezkoa ez dan gizarte bat, eta gurako neuke inori burutik be ez pasatea ingurumena jagoten ez dauan gizarte bat. Zaintza horrek, portaera guztiek moduan, norberaren egintzan dauka oinarria, bakoitxak egiten dogun horretan. Guk, Bizkaiko Foru Aldundia garan aldetik, Jasangarritasun Energetikoaren Euskal Legea beteteko lanean jarraituten dogu, benetako trantsizio energetikoa bultzatuten jarraituten dogu, eta hor funtsezko betebeharrak eukiko dau Energy Intelligence Centerrek. Egoitza-erakina 2023ko lehen hiruhilekoan jarriko da martxan, trantsizio energetikoan nazinoarteko lehia-gune bihurtuteko erronkeagaz, hegoaldeko Europako hidrogenoaren erreferente bihurtuteko. 80 erakunde ari dira lanean erregai barriaren proiektu honetan; zorroan 35 proiektu daukaz urtean 1,5M tona CO2 murrizteko helburuagaz, eta urtean 20.000 tona hidrogeno ekoizteko erronkeagaz, 1.300 milioiko inbertsinoagaz eta 1.340



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

enplegu zuzen eta zeharkako 6.700 sortuteko aurreikuspenagaz. Era berean, EICren, sare adimendunen zentroaren arlo elektrikoan egin dogu aurrera. 60 erakunde alkarregaz lanean, Iberdrola, ahalik eta traktore onenaren eskutik, 120 proiektu zehaztuta.

Bizkaibus errealidade barrira egokitzen ari gara. Gaur egun 51 ibilgailu hibrido daukaguz gure autobus-zerbitzuan lurralde osoari zerbitzua emoteko, eta flotaren % 15,2 dira. 2023ko lehen hiruhilekora arte 6 ibilgailu elektriko eta beste 28 hibrido sartutea aurreikusi dogu. Holan 2023ko bigarren hiruhilekorako 6 ibilgailu elektriko eta 79 hibrido eukiko geunkez. Guztira, ibilgailu guztiak kontuan hartuta motorizazio hibridoa edo elektrikoa izango dabenak % 25 baino gehiago dira. Gure flotaren laurdena efizientzia energetiko handikoa izango da, eta emisino txiki edo emisino bakoia.

Urtea amaitu baino lehen Aldundiaren Energiaren Jarduketarako Plan Orokorra izango dogu, sail guztien lankidetzagaz, energia aurreztea eta efizientzia sustatuko dazana. Fiskalitate berdeagaz jarraituten dogu, enpresa jasangarriak konpentsaten dazana, eta klima-aldaketaren aurka guri jagokun aletxoak ipinten jarraituten dogu arriskuen eta kalteberatasunen aurreikuspenakaz, Bizkaiko Klima eta Energia Ekintza Planagaz eta ekonomia zirkularraren sustapenagaz.

Eta bereziki gure ekosistema zainduz, gure lurra. Baso-estalkiaren zeregina erabakigarria da hainbat arlotan: klima-aldaketaren aurkako borrokan, higaduran eta flora eta faunarentzako habitat gisa. Gure lurraldearen % 60 inguru basoa da. Gure mendiak eta basoak jagoten badoguz, planetea zaintzen dogu, ingurumena eta etorkizuna babesten doguz. Horregaitik egin dogu lurraldeko espezieak basobarrituteko, lehengoratuteko eta berreskuratuteko plana. Lau milioi euro inbertiduko doguz basoak erosi eta bertoko espezieak landatutueko. Epe ertain eta luzera ez eze, epe laburrera be emoitzak izaten dabezan lanak eta inbertsinoak. Gure mendiak zaindutea erabakigarria da baso-suteak saihesteko. Estatu mailan eta nazinoartean suteetan ikaragarria izan dan uda honetan. Bizkaia 2021. urtea amaitzean basoko sute-kopururik gitxien izan dauan bigarren urtea itxi eban. Aurtengo 2022. urtean, joera horri eustea lortu dau, beroak eta klima-baldintzek kontrakoa gertatzeko aukera guztiak eskaini dabezen arren.

Berdetik jarraituta, ni neu eta danok asko pozten gaituan proiektu bati buruz egin nahi dot berba: Omako basoa, Agustín Ibarrolaren baso margotua. Arazoa aukera bihurtu dogu. Beti lez, geure kulturearen alde egiten dogu. Berbaldi honen hasieran kontzertu bat aitatu dot, gero geure hizkuntzea eta euskerearen interpretazio-zentro barria, eta BOSen mendeurrena be bai. Batetik proiektu handiak dagoz, esaterako Guggenheim Gernika, Arte Ederren Museoaren zabalkuntzea eta Euskal Museoa hobetzeko obrak; bestetik Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen dituan museoak eta aretoak zainduko dira. Ganera, gogoan euki behar da aurtengo udan barri onak daukaguzala: pandemiaren aurreko kopuruak gainditu doguz. Garagarrilean eta agorrilean 30.000 pertsona



inguru izan dira Aldundiaren hamaika museo eta aretoetan, 2019ko aldi berean baino ia 6.000 bisitari gehiago.

Honetara helduta, egokia eta beharrezkoa da eskerrak emotea. Egokia, beharrezkoa eta nahitaezkoa. Eskerrak emon behar deutseguz Bizkaiko Foru Aldundiaren langileei, euren profesionaltasunari esker esan dodan guztia gauzatu ahal izan dogu eta. Behar asko egin dabe. Asko be asko. Neure eskerron zintzo eta sakona adierazo nahi deutset danei, bai foru diputatuei, bai ganerako guztiei. Guzti-guztiei. Harrituta nago egin dabenagaz. dana dala, hau ez da geldituko. Ezin da gelditu. Taldeko kideei eskatu deutset ahalegin handiagoa egin dagiela hobetzeko proiektu barriak abian ipinteko.

Askok egin dogu. Ezin da ukatu. Baina, ez dogu dana egin. Izan be, badagoz proiektu bi, ezin izan doguzanak martxan ipini eta niri atsekabe handia emoten deutenak. Bata Lekeitioko kobazulo-artearen zentroa da. Ondare ederra daukagu, eta ahalik egoitzarik hoberena emon behar deusagu. Ez gara izan gauza abian ipinteko. Bestea Bilbo efektua itsasadarreko herri guztietara zabaltzeko proiektua da. Horri be ezin izan deusagu heldu behar dan moduan, asmo handiagaz, erronkea be handia da eta. Aurrerapausu batzuk egin doguz, esaterako itsasadarraren azpiko tunela (orain Metroagaz loturea be badauka), itsasadarreko bulebarra, Barakaldo eta Bilbo arteko bidegorria... baina ez dogu zehaztu jardun-proiektu orokorra. Uste dot etorkizuneko proiektua dala, zalantza barik. Etorkizunekoa eta oraingoa. Proiektu nagusia da, berari esker itsasadarra Bizkaiko etorbidea izango da eta. Ona izango da Bizkaientzat eta ona izango da Bizkaiko udalerrri guztientzat, ona herritarrentzat eta ona gizarte aurreratu guztietan ezinbestean egin beharreko trantsizioak egiteko benetako gidariakaz, ona arlo publikoaren eta arlo pribatuaren arteko lankidetzaz, talde-lana, sustatzeko. Jakina, autokritikea be egin behar dot. Gauza asko egin doguz eta batzuk ez, baina gehiago egin behar doguz. Bizkaiko hurrengo proiektu handiakaz amets egiten hasi behar dogu, Bizkaia eten barik hobera egin behar dau eta.

Irribarretsu hasi naiz, ilusinoagaz. Amaitu be ilusinoagaz egin nahi dot, Bizkaiko Foru Aldundiak funtsezko parte-hartzea euki dauan ilusino handi bategaz: Frantziako Tourra. Datorren urtean Tourra Bizkaian hasiko da, Bilbon, Euskadin. Tourrak Kopenhageko urteera-ekitaldira gonbidatu ninduan. Eragin handia egin eustan, bai emozionala, bai arrazionala. Aukera ederra eukiko dogu munduari erakusteko nortzuk garean, zelakoak garean, non bizi garean eta zer egiten dogun. 300 milioi pertsonak ikusiko gaitue eta ezagutu egingo gaitue. Aukera ezin hobea da, mundu osoan ezagutzen eta miresten daben aliatu bikainak emongo deuskuna. Tourrak ehun urtetik gorako esperientzia dauka, eta ondo baino hobeto daki zertan dabilen. Izan be, Tourra zeozergaitik da Tourra. Ez dauka parerik. Harrigarria da.

Alde sentimentaletik be, talde modura, itzela izango da. Danontzat. Bardintasuna. Itzelezko ekitaldia izango da. Uste dot ez dogula ondo ulertzen zer jatorrun ganera, zein handia dan Tourrak



*Bizkaiko Ahalduen Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

dakarrena, Tourrak eragiten dauana. Dana dala, ezusteko onuragarria izango da, oso onuragarria, beti gomutan eukiko doguna eta parte hartzeko aukerea emongo deuskuna. Herri eta pertsona bakotzak beretik emon leike zeozer, eta holan danon artean egingo dogu mundu osoan zabalduko dan ekitaldi gogoangarri eta ahaztuezina. Ziur nago: oso handia izango da. Ikaragarria. Eta hementxe izango da, Bizkaian. Bizkaiko Foru Aldundia hasita dago dagoeneko pedalei eragiten. Jo eta ke ibili ginan Tourrak Euskadiri baiezkoa emoteko, eta orain Tour Eguna herri guztietatik dabil Tourraren eta bizikletaren barri zabaltzeko umeen artean.

Hasi naizen moduan amaituko dot, ilusinoagaz. Ilusinoa, bai. Ilusinoa Bizkaiaren alde egiteko, egunean-egunean lurralde honen alde lan egiteko. Ilusinoa proiektu barriakaz ametsetan hasteko. Eta ilusinoa ametsetako proiektuak gauzatzeko. Ilusinoa.

Beti. Ilusinoa eta konpromisoa. Konpromisoa be beti. Konpromisoa dana emoteko, norberaren bertsinorik onena eskaintzeko., jarduera ekonomikoa eta enplegua eta babesteko, zerbitzu publiko onak bermatzeko, behar daben guztiei laguntzeko, bizkaitarren zerbitzuan egoteko. Danen zerbitzuan. Bardintasuna. Horixe da etorkizuna. Horixe da Bizkaiko Foru Aldundia. Horixe da Bizkaia, gure lurraldea. Bizkaia maite.

Unai Rementeria Maiz
Bizkaiko Ahalduen Nagusia



*Bizkaiko Ahaldu Nagusia
El Diputado General de Bizkaia*

Intervención del Diputado General de Bizkaia en el Pleno de Política General

Gernika, 28 de septiembre de 2022

Reducir un intenso último año, una intensa legislatura, en una intervención no resulta fácil. Pero es más fácil cuando se encuentra un punto de partida. Empiezo desde San Mamés con una gran sonrisa. Con una no, con miles, con 47.000 sonrisas, 47.000 personas felices. Empiezo recordando el concierto de Fito, porque recordar es volver a vivir y a revivir aquella noche mágica, aquella explosión colectiva de felicidad. Muchísimo más que un concierto: una catarsis, un volver a la vida que conocíamos. Confieso que me impactó, que me desbordó por dentro. 47.000 personas felices forman una corriente que te atrapa y te lleva, quieras o no. Y todas y todos queríamos. Mis gracias a Fito y a su gran equipo, al resto de artistas, a Gatibu, a Morgan, a Dani Martín... Y, sobre todo, mi agradecimiento al público, a todas esas personas que fueron, fuimos, absolutamente felices; que comprobamos que hay espacios comunes donde cabemos todas y todos. Espacio que esta Diputación de Bizkaia tuvo el acierto de impulsar y todas y todos nosotros, la suerte de vivirlo y el lujo de poder recordarlo siempre.

En Bizkaia siguen pasando cosas extraordinarias, cosas que merecen mucho la pena. No será la última. Eso seguro. Seguirán pasando cosas increíbles para todas y todos en Bizkaia. Seguiremos haciendo que pasen. Esta Diputación Foral de Bizkaia sigue comprometida con las personas y el territorio. Esta Diputación sigue en marcha, a pleno rendimiento, a toda máquina. Seguimos trabajando y seguiremos trabajando. Seguimos haciendo grandes cosas y seguiremos haciendo grandes cosas. Seguimos. Y seguimos desde el aval de quien cumple su palabra, desde la garantía de quien hace lo que dice.

